

Inurria baino langileagoa da

Esataria: Egun on. Askotan, pertsonak nolakoak diren azaltzeko, animaliekin konparatzen ditugu. Adibidez, lankideek beti esaten didate ni txingurria (inurria, txindurria) baino langileagoa naizela! Eta zuek, egiten al dituzue horrelako konparazioak? Esango al diguzue nolakoak diren zuen ingurukoak animaliairen batekin alderatuta? Deitu eta utzi zuen mezuak!

Entzulea 1: Hepa! Gure entrenatzaileak, gu animatzeko, taldekideok zezenak baino indartsuagoak garela esaten digu, eta oso motibatuta ateratzen gara zelaira!

Entzulea 2: Kaixo! Goiko bizilaguna mandeuliak baino astunagoa da! Igogailuan harrapatzen nauenean, ekin eta ekin aritzen da, isildu gabe! Ai, zer buruko mina jartzen didan!

Entzulea 3: Egun on! Amak beti esaten du anaia zaharrena zorria baino alferragoa dela, eta arrazoi du, lan egiteak ez dio batere graziaz egiten!

Esataria: Hara, ez dira gutxi jaso ditugun mezuak! Eskerrik asko denoi!